

Oinarrizko gida, 2026 martxo
Guía básica, Marzo 2026

BGF Basque Green
FILM



Ikus-entzunezko ekoizpenetarako plan jasangarria

Plan de sostenibilidad para producciones audiovisuales

2026 martxo
Oinarrizko gida
Marzo 2026
Guía básica

Ikus-entzunezko ekoizpenetarako plan **jasangarria**

Plan de sostenibilidad para producciones audiovisuales

BGF Basque Green
FILM



Argibidea

/ Sarrera	3
Hitzaurrea	4
Berritasunak	5
Ikus-entzunezko produkzioen ingurumen- inpaktua	7
/ Jasangarritasun Plana	10
Egitura eta zereginak	11
Ingurumen-diagnosia	13
Helburuak	17
Neurriak	20
Kudeaketa	22
/ Neurriak	30
1. Plangintza estrategikoa garapenean eta preprodukzioan	31
2. Emisio urriko mugikortasuna	33
3. Energia berriztagarria eta efizientea	35
4. Elikadura jasangarria	37
5. Material zirkularrak hautatzea	39
6. Hondakinak gutxitzea eta kudeatzea	41
7. Ingurumen-babesa	42
8. Jasangarritasun soziala	44
9. Komunikazioa eta sentsibilizazioa	46
10. Ingurumen-inpaktuaren neurketa	48
/ Eranskinak	50
Tresna osagarriak	51
Beste baliabide batzuk	53
Hitzen glosarioa	55

Índice

/ Introducción	3
Prólogo	4
Novedades	5
Impacto medioambiental de las producciones audiovisuales	7
/ Plan de sostenibilidad	10
Estructura y funciones	11
Diagnóstico medioambiental	14
Objetivos	17
Medidas	20
Gestión	22
/ Medidas	30
1. Planificación estratégica en desarrollo y preproducción	32
2. Movilidad de bajas emisiones	34
3. Energía renovable y eficiente	36
4. Alimentación sostenible	38
5. Selección de materiales circulares	40
6. Reducción y gestión de residuos	41
7. Protección ambiental	43
8. Sostenibilidad social	45
9. Comunicación y sensibilización	47
10. Medición de impacto ambiental	49
/ Anexos	50
Herramientas complementarias	51
Otros recursos	53
Glosario de términos	55

Sarrera

Introducción

Hitzaurrea

Klima-larrialdia eta biodibertsitatearen galera dira gizateriaren erronka handienetako bi. Parisko Akordioaren nazioarteko konpromisoen eta Europako Itun Berdearen jarraibideen ildotik, Euskadiko produkzio-sektoreek energia fosilen eta baliabide naturalen erabilera murrizteko bitartekoak jartzeko konpromisoa hartu dute. Euskadiko ikus-entzunezkoen sektoreak erronkarekin bat egiteko aukera du, eta zinema modu jasangarrian produzitzeko eskualde erakargarri bihurtu, planetaren zein pertsonen mesedetan.

Ikus-entzunezko produkzioetarako Jasangarritasun Planaren oinarritzeko gida Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sustatutako Basque Green Film (BGF) idazkaritza teknikoaren ekimena da.

Gidaren bigarren bertsio eguneratu honen helburu nagusia da produkzio-enpresei jasangarritasun plan bat egiteko orientazioa ematea. Dokumentu horretan urratsez urrats aurkezten da ikus-entzunezko proiektuak aztertze, emisioak murrizteko planak prestatzeko eta horiek produkzio-prozesuan sartzeko modua, hainbat arlotan aplikatu daitezkeen jasangarritasun-neurri eta tresna lagungarri batzuekin batera.

Gida hau egitean, zinema jasangarrian erreferenteak diren hainbat ekimenen gomendioak bildu dira, bai eta BGF idazkaritzaren lau urteko funtzionamendutik eratorritako ikaskuntzak ere. Egitura eta kontzeptu nagusiak Green Film ziurtagiria oinarritzen dira, hau da, CineRegio sareak (zinemarako eskualde-funtsen eta Europako Film Commissions direlakoan sarea, zeinaren kide baita Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saila) hartutako estandarrean. Gainera, Euskadiko ikus-entzunezkoen sektoreko eragile nagusien lankidetzan izan da: ZINEUSKADI, ikus-entzunezko ekoiztetxe independenteen elkarteak (EPE-IBAIA eta APIKA) eta hiru Film Commissionsak (Bilbo, Donostia eta Gasteiz).

Prólogo

La emergencia climática y la pérdida de biodiversidad son dos de los mayores desafíos de la humanidad. En línea con los compromisos internacionales del Acuerdo de París y las directrices del Pacto Verde Europeo, los sectores productivos de Euskadi se han comprometido a poner los medios para reducir el uso de energías fósiles y recursos naturales. El sector audiovisual de Euskadi tiene la oportunidad de unirse a este reto y consolidarse como una región atractiva donde producir cine de manera sostenible, para el planeta y para las personas.

La Guía Básica de Plan de Sostenibilidad para producciones audiovisuales es una iniciativa de Basque Green Film (BGF), la secretaría técnica impulsada por el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco.

Esta segunda versión actualizada de la guía tiene como principal objetivo orientar a las empresas productoras en la elaboración de un plan de sostenibilidad. Es un documento en el que se presenta paso a paso cómo analizar los proyectos audiovisuales, elaborar planes de reducción de emisiones e integrarlos en el proceso de producción, junto con una serie de medidas de sostenibilidad aplicables en diferentes áreas y herramientas de apoyo.

En la elaboración de esta guía se han recopilado recomendaciones de diversas iniciativas referentes en cine sostenible, así como los aprendizajes derivados de cuatro años de funcionamiento de BGF. La estructura y conceptos principales se basan en la certificación Green Film, el estándar adoptado por CineRegio (la red de fondos regionales para el cine y Film Commissions de Europa, a la que pertenece el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco). Además, se ha contado con la colaboración de los principales agentes del sector audiovisual de Euskadi: ZINEUSKADI, las asociaciones de productoras audiovisuales independientes (EPE-IBAIA y APIKA) y las tres Film Commissions (Bilbao, Donostia/San Sebastián y Vitoria-Gasteiz).

Berritasunak

Oinarrizko Gidaren bigarren bertsio honek hobekuntza garrantzitsuak dakartza, Euskadiko ikus-entzunezko produkzioen alboan lau urtez egotean metatutako esperientzian oinarrituta. Eguneratzeak jasangarritasun planak prestatzen zein horiek praktikoki aplikatzen laguntzeko diseinatu dira.

/ Eguneratutako eta testuinguruan jarritako datuak

Gidak Euskadiko ikus-entzunezkoen sektoreari buruzko datu espezifikoak gaineratzen ditu, proiektu tipologiaren araberrako CO₂ emisioen ratioak eta eremuen araberrako inpaktuen portzentajezko banaketa barne. Informazio horrek aukera ematen die ekoizleei helburu zehatzagoak ezartzeko, eta beren emaitzak sektoreko erreferenteekin alderatzeko.

/ Autodiagnosirako tresna hobetuak

Indarguneak eta ahulguneak identifikatzeko taula bat garatu da, garapen- eta preproduzio-fasean dauden produkzioetarako berariaz diseinatua. Tresna horrek aukera ematen du filmaketa hasi aurretik hobekuntza-aukerak hautemateko, erabakiek orduan baitute eragiteko ahalmen handiagoa.

/ Plangintza xeheagoa

Helburuen atala metodologia espezifikoekin areagotu da, helmuga zenbakarriak eta kronograma errealistak ezartzeko.

/ Berrikusitako laguntza-tresnak

Laguntza-tresnen multzoa eguneratu egin da, eta hor sartzen dira autodiagnosirako fitxa, txantiloiak eta Euskadiko ikus-entzunezko sektorerako berariaz diseinatutako karbono-aztarnaren kalkulagailu berria.

Novedades

Esta segunda versión de la Guía Básica incorpora importantes mejoras basadas en la experiencia acumulada durante cuatro años de acompañamiento a producciones audiovisuales vascas. Las actualizaciones se han diseñado para facilitar tanto la elaboración como la aplicación práctica de planes de sostenibilidad.

/ Datos actualizados y contextualizados

La guía incorpora datos específicos del sector audiovisual vasco, incluyendo ratios de emisiones de CO₂ por tipología de proyecto y distribución porcentual de impactos por áreas. Esta información permite a las productoras establecer objetivos más precisos y comparar sus resultados con referencias sectoriales.

/ Herramientas de autodiagnóstico mejoradas

Se ha desarrollado una tabla de identificación de fortalezas y puntos débiles específicamente diseñada para producciones en fase de desarrollo y preproducción. Esta herramienta permite detectar oportunidades de mejora antes del inicio del rodaje, cuando las decisiones tienen mayor capacidad de impacto.

/ Planificación más detallada

La sección de Objetivos se ha ampliado con metodologías específicas para establecer metas cuantificables y cronogramas realistas.

/ Herramientas de apoyo revisadas

Se ha actualizado el conjunto de herramientas de apoyo, incluyendo la ficha de autodiagnóstico, plantillas y la nueva calculadora de huella de carbono Kalku, específicamente diseñada para el sector audiovisual vasco.

/ Rolen araberako erantzukizun argiak

Taldeari buruzko atala nabarmen handitu da, maila bakoitzerako jarraibide espezifikoak txertatuz: produkzio exekutibotik eta zuzendaritzatik hasi eta sail teknikoetara arte. Rol bakoitzak bere erantzukizunak zehaztuta ditu jasangarritasun planean, koordinazioa eta jarraipena ahalbidetuz.

/ Glosario espezializatua

Gidak jasangarritasunarekin eta ikus-entzunezko ekoizpenarekin lotutako hitz teknikoen glosario bat jasotzen du, kontzeptuen ulermena eta taldeen arteko komunikazioa errazteko.

/ Jarraipen eta ebaluazio sistematikoak

Jarraipenari eta ebaluazioari buruzko atal berri bat garatu da, ikus-entzunezko produkzioetarako arlokako ingurumen-adierazleak eta neurketa-metodo espezifikoak barne hartzen dituena. Adierazle horiek aukera ematen dute ingurumen-jarduera ebaluatzeko, eta proiektuen arteko emaitzak alderatzeko.

/ Neurri sakonduak eta eguneratuak

Jasangarritasun-neurrien katalogoa aberastu egin da irizpide berriak txertatuta, hala nola, jasangarritasun soziala, ingurune naturalaren babesa eta ingurumen-inpaktuaren neurketa. Neurriak berrantolatu egin dira, eragiteko ahalmenaren arabera. Horretarako, ekoizpenekin lotutako datu errealak hartu dira oinarritzat.

/ Responsabilidades claras por roles

La sección dedicada al equipo se ha expandido significativamente, incorporando indicaciones específicas para cada nivel: desde la producción ejecutiva y dirección hasta los departamentos técnicos. Cada rol tiene definidas sus responsabilidades en el plan de sostenibilidad, facilitando la coordinación y el seguimiento.

/ Glosario especializado

La guía incorpora un glosario de términos técnicos relacionados con sostenibilidad y producción audiovisual, facilitando la comprensión de conceptos y la comunicación entre equipos.

/ Seguimiento y evaluación sistemáticos

Se ha desarrollado una nueva sección dedicada al seguimiento y evaluación, que incluye indicadores ambientales sectoriales y métodos de medición específicos para producciones audiovisuales. Estos indicadores permiten evaluar desempeño ambiental y comparar resultados entre proyectos.

/ Medidas ampliadas y actualizadas

El catálogo de medidas de sostenibilidad se ha enriquecido incorporando nuevos criterios como sostenibilidad social, protección del medio natural y medición de impacto ambiental. Las medidas se han reorganizado según su potencial de impacto, basándose en datos reales de producciones.

Ikus-entzunezko produkzioen ingurumen-inpaktua

Pertsonen eta materialen garraioak karbono-aztarnaren erdia baino gehiago sortzen du ikus-entzunezko produkzio batean.

Ikus-entzunezko sektoreko emisioei buruzko datu espezifikoak urriak dira, baina badira nazioarteko zein tokiko erreferentziak, produkzio zinematografikoen ingurumen-inpaktuaren tamaina eta banaketa hobeto ulertzea ahalbidetzen digutenak.

Nazioartean adierazgarrienak diren azterlanek ikus-entzunezkoen sektorearen ingurumen-inpaktuari buruzko eredu sendoak berresten dituzte. BAFTA albert 2023 txostenaren arabera, ikus-entzunezko produkzioek (mota guztietako edukiak barne hartzen dituztenak, hala nola, kirol-emanaldiak, albistegiak, entretenimendu-programak eta telesailak), batez beste, 16,6 tCO₂eq eduki sortzen dute orduko.

Hala ere, alde esanguratsuak daude generoaren arabera: **dokumentalek 15,2 tCO₂eq sortzen dute orduko, eta fikziozko film luzeek, berriz, 81 tCO₂eq amaierako metrajearen orduko,** dokumentu-inpaktua baino bost aldiz handiagoa. Animazio-produkzioen kasuan, ez dago ingurumen-inpaktuari buruzko azterlan espezifikorik eskuragarri.

2021eko Sustainable Production Allianceren (SPA) azterlanak, zeinak Estatu Batuetan 161 film luze aztertu baitzituen, berretsi egiten du magnitude hori, eta ezartzen du 20 milioi dolarrera arteko aurrekontua duten film luzeen produkzioek, batez beste, 391 tona CO₂ sortzen dutela filmeko.

Impacto medioambiental de las producciones audiovisuales

El transporte de personas y materiales supone más de la mitad de la huella de carbono de una producción audiovisual

Los datos específicos sobre las emisiones del sector audiovisual son escasos, pero existen referencias tanto internacionales como locales que nos permiten comprender mejor la magnitud y distribución del impacto ambiental de las producciones cinematográficas.

Los estudios más representativos a nivel internacional confirman patrones consistentes sobre el impacto ambiental del sector audiovisual. Según el informe BAFTA albert 2023, las producciones audiovisuales (que incluyen todo tipo de contenidos, desde retransmisiones deportivas, informativos, programas de entretenimiento y series) generan una media de 16,6 tCO₂eq por hora de contenido.

Sin embargo, existen diferencias significativas según el género: **los documentales generan 15,2 tCO₂eq por hora, mientras que los largometrajes de ficción alcanzan 81 tCO₂eq por hora de metraje final,** más de cinco veces superior al impacto documental. En el caso de las producciones de animación, no existen estudios específicos disponibles sobre su impacto ambiental.

El estudio de la Sustainable Production Alliance (SPA) de 2021, que analizó 161 largometrajes en Estados Unidos, confirma esta magnitud estableciendo que las producciones de largometrajes de presupuesto hasta 20 millones de dólares generan de media 391 toneladas de CO₂ por película.

Bi azterlanen arabera, garraioak produkzioen ingurumen-inkaktu osoaren % 51 eta % 55 artean hartzen du. BAFTA albert txostenaren arabera, aireko bidaiak dira garraio-emisioen eragile nagusia, eta, haiek bakarrik, gainerako garraiobide konbinatuen parera heltzen dira.

BILIBIN aholkularitza-enpresak batik bat Euskadin ekoiztutako 15 film luzeren gaineko azterketa egin zuen 2022-2024an, eta azterketa horrek erreferentzia espezifikoa ematen du gure testuingururako. Aztertutako produkzioek errealizazio-kostuari dagozkionez 2,78 milioi euroko batez besteko profila erakusten dute, eta nazioarteko joerak berresten dituzte, tokiko ñabardura garrantzitsuekin. Emisioen % 66 mugikortasunetik datoz: pertsonen eta materialaren eguneroko garraioa (% 42,6) eta langileen distantzia luzeko bidaiak (% 23,4). Beste faktore esanguratsu batzuk dira ostatua (% 13,8) eta jatekoa (% 10,0). Gainera, azterlanak erakusten du korrelazio zuzena dagoela aurrekontuaren eta inpaktuaren artean: **22 tCO₂eq errealizazio-kostuko milioi euroko.**


Hiru azterlanak bat datoz funtsezko bi ondorio ateratzean. Lehenik eta behin, **bidaiak eta garraioa dira nagusi ingurumen-inkaktuari; emisioen erdia baino gehiago dira** aztertutako kasu guztietan, eta proportzio hori % 66ra iristen da tokiko testuinguruan. Bigarrenik, aurrekontuaren eta ingurumen-inkaktuaren arteko korrelazio zuzena berresten da, eta ezartzen da zenbat eta inbertsio ekonomiko handiagoa, orduan eta handiagoa dela karbono-aztarna.

Kontuan hartzen bada garraioa eta energia gehienbat erregai fosilen menpe daudela, ondoriozta daiteke horiek direla ikus-entzunezko produkzio baten karbono-aztarna handiena sortzen dutenak. Ikus-entzunezko sektore jasangarriagoa lortzeko, lehentasunezkoa da ingurumen-irizpideak txertatzea proiektua garatzeko lehen faseetatik, garraio-plangintza optimizatuz, hurbileko kokaleku irisgarriak lehenetsiz, eta talde teknikoaren eta artistikoaren aireko joan-etorriak minimizatuz.

Ikus-entzunezko produkzioetarako ingurumen-inkaktuaren adierazleak:

ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEA	BATEZ BESTEKO BALIOA	ITURRIA
FIKZIOZKO FILM LUZEA INPAKTUA KOSTUAREN ARABERA	22 tCO₂eq errealizazio-kostuaren milioi euroko	Bilibin
FIKZIOZKO FILM LUZEA INPAKTUA AZKEN METRAJEAREN ARABERA	81 tCO₂eq azken metrajearen orduko	Bafta-Albert
FILM LUZE DOKUMENTALA INPAKTUA AZKEN METRAJEAREN ARABERA	15 tCO₂eq azken metrajearen orduko	Bafta-Albert

Inpaktuen banaketa, Bilibinek 2025eko maiatzean argitaratutako txostenaren arabera: «Zinemaren ingurumen-inkaktuaren txostena: 2022-2024»:



Ambos estudios coinciden en señalar que el transporte representa entre el 51% y 55% del impacto ambiental total de las producciones. Según el informe BAFTA albert, los viajes aéreos son el principal contribuyente a las emisiones de transporte, equiparando por sí solos al resto de medios de transporte combinados.

El análisis de 15 largometrajes producidos mayoritariamente en Euskadi realizado por la consultora BILIBIN entre 2022-2024 proporciona una referencia específica para nuestro contexto. Las producciones analizadas presentan un perfil promedio de 2,78 millones de euros de coste de realización y confirman las tendencias internacionales con matices locales importantes. El 66% de las emisiones provienen de la movilidad: el transporte diario de personas y material (42,6%) y los viajes de larga distancia del personal (23,4%). Otros factores significativos incluyen el alojamiento (13,8%) y la comida (10,0%). Además, el estudio revela una correlación directa entre presupuesto e impacto: **22 tCO₂eq por millón de euros de coste de realización.**


Los tres estudios convergen en dos conclusiones fundamentales. En primer lugar, **los viajes y el transporte dominan el impacto ambiental, representando más de la mitad de las emisiones** en todos los casos analizados, proporción que alcanza el 66% en el contexto local. En segundo lugar, se confirma una correlación directa entre presupuesto e impacto ambiental, estableciendo que a mayor inversión económica, mayor huella de carbono.

Si se tiene en cuenta que tanto el transporte como la energía dependen en su mayoría de combustibles fósiles, se puede concluir que estos son los que más contribuyen a la huella de carbono de una producción audiovisual. Para conseguir un sector audiovisual más sostenible, resulta prioritario integrar criterios ambientales desde las primeras fases de desarrollo del proyecto, optimizando la planificación de transportes, priorizando localizaciones próximas y accesibles, y minimizando los desplazamientos aéreos del equipo técnico y artístico.

Indicadores de impacto ambiental para producciones audiovisuales:

INDICADOR DE REFERENCIA	VALOR MEDIO	FUENTE
LARGOMETRAJE DE FICCIÓN IMPACTO POR COSTE	22 tCO ₂ eq por millón de euros de coste de realización	Bilibin
LARGOMETRAJE DE FICCIÓN IMPACTO POR METRAJE FINAL	81 tCO ₂ eq por hora de metraje final	Bafta-Albert
LARGOMETRAJE DOCUMENTAL IMPACTO POR METRAJE FINAL	15 tCO ₂ eq por hora de metraje final	Bafta-Albert

Distribución de impactos según el "Informe impacto ambiental del cine: 2022-2024" publicado por Bilibin en mayo de 2025:



Jasangarritasun plana

Plan de sostenibilidad

Egitura eta zereginak

Jasangarritasun plana da ikus-entzunezko produkzioetan jasangarritasuna kudeatzeko funtsezko tresna.

Tresna horrek ikus-entzunezko edozein proiekturen ingurumen-kudeaketa zentralizatzen du, lehentasun argiak ezartzen ditu, neurri espezifikoak hautatzen ditu eta arduradunak eta jarduketa-kronograma zehazten ditu. Planaren eraketa errazteko, gida honekin batera, txantiloi eredu bat eta autodiagnosirako tresna bat ematen dira.

Plana proiektuaren garapen-fasean idazten bada, zenbatespenetan oinarrituko da. Filmatze-data berretsi eta preprodukzioa hurbildu ahala, plana berrikustea eta eguneratzea gomendatzen da, proiektuaren errealitatera hobeto egokitzeko eta hartutako neurrien eraginkortasuna maximizatzeko.

JASANGARRITASUN PLANAREN ZEREGIN NAGUSIAK:

/ Hasierako ingurumen-diagnosia egitea
Proiektuaren alderdi kritikoak identifikatzea ingurumenaren ikuspegitik, produkzio bakoitzaren inpaktu handieneko puntuak zein hobekuntza-aukera espezifikoak aztertuz.

/ Helburu neurgarriak eta lorgarriak ezartzea
Egindako diagnosiaren, erabilgarri dauden baliabideen eta produkzioaren ezaugarri berezien arabera, lehentasunezko arreta eskatzen duten alderdiak zehaztea.

/ Jasangarritasun-neurriak hautatzea eta ezartzea
Produkzioaren berezitasunetara egokitutako ekintza zehatzak aukeratzea eta ezartzea, CO₂ emisioak gutxitzeko eragin handiena dutenak lehenetsiz.

/ Talde arduraduna eta kronograma zehaztea
Erantzukizun espezifikoak esleitzea eta epe errealistak ezartzea, proiektuaren fase guztietan plana eraginkortasunez aplikatzen dela bermatzeko.

/ Neurketa eta jarraipena egiteko sistema bat ezartzea
Benetako ingurumen-inpaktua eta ezarritako neurrien eraginkortasuna ebaluatzeko neurketa-adierazleak eta -tresnak zehaztea.

Estructura y funciones

El plan de sostenibilidad es el instrumento fundamental para gestionar la sostenibilidad en las producciones audiovisuales.

Esta herramienta centraliza la gestión ambiental de cualquier proyecto audiovisual, establece prioridades claras, selecciona medidas específicas y define responsables y cronograma de actuación. Para facilitar su elaboración, junto con esta guía se proporciona una plantilla modelo y una herramienta de autodiagnóstico.

Si el plan se redacta durante la fase de desarrollo del proyecto, se basará en estimaciones. Una vez confirmada la fecha de rodaje y al aproximarse la preproducción, se recomienda revisarlo y actualizarlo para ajustarlo mejor a la realidad del proyecto y maximizar la eficacia de las medidas adoptadas.

FUNCIONES PRINCIPALES DEL PLAN DE SOSTENIBILIDAD:

/ Realizar un diagnóstico ambiental inicial
Identificar los aspectos más críticos del proyecto desde la perspectiva ambiental, analizando tanto los puntos de mayor impacto como las oportunidades de mejora específicas de cada producción.

/ Establecer objetivos medibles y alcanzables
Definir qué aspectos requieren atención prioritaria en función del diagnóstico realizado, los recursos disponibles y las características particulares de la producción.

/ Seleccionar e implantar medidas de sostenibilidad
Elegir e implantar acciones concretas adaptadas a las especificidades de la producción, priorizando aquellas con mayor impacto en la reducción de emisiones de CO₂.

/ Definir equipo responsable y cronograma
Asignar responsabilidades específicas y establecer plazos realistas para garantizar la aplicación efectiva del plan durante todas las fases del proyecto.

/ Establecer un sistema de medición y seguimiento
Definir indicadores y herramientas de medición que permitan evaluar el impacto ambiental real y la eficacia de las medidas implantadas.

JASANGARRITASUN PLAN BATEN AURKIBIDEA

1. HELBURUAK

/ Ingurumen-diagnosia
/ Helburu orokorrak
eta espezifikoak

2. JASANGARRITASUN NEURRIAK

/ Plangintza
estrategikoa garapenean
eta preprodukzioan
/ Emisio urriko mugikortasuna
/ Energia berriztagarria
eta efizientea
/ Elikadura jasangarria
/ Hondakinak
gutxitzea eta kudeatzea
/ Material zirkularrak
/ Ingurumen-babesa
/ Jasangarritasun soziala
/ Komunikazioa
eta sentsibilizazioa
/ Ingurumen-
inpaktuaren neurketa

3. PLANAREN KUDEAKETA

/ Talde arduraduna
/ Kronograma
/ Jarraipena eta ebaluazioa

ÍNDICE DE UN PLAN DE SOSTENIBILIDAD

1. OBJETIVOS

/ Diagnóstico ambiental
/ Objetivos generales
y específicos

2. MEDIDAS DE SOSTENIBILIDAD

/ Planificación estratégica
en desarrollo y reproducción
/ Movilidad de bajas emisiones
/ Energía renovable y eficiente
/ Alimentación sostenible
/ Reducción y
gestión de residuos
/ Materiales circulares
/ Protección ambiental
/ Sostenibilidad social
/ Comunicación
y sensibilización
/ Medición de
impacto ambiental

3. GESTIÓN DEL PLAN

/ Equipo responsable
/ Cronograma
/ Seguimiento y evaluación

Ingurumen- diagnosia

Ezinbestekoa da ikus-entzunezko produkzio baten indarguneak eta ahulguneak identifikatzea, jasangarritasun-arloko helburu eta neurri eraginkorrak ezartzeko. Azterketa zenbat eta lehenago egin, orduan eta tarte handiagoa egongo da jasangarritasunaren aldeko erabaki estrategikoak hartzeko.

Diagnosia funtsezko lau dimentsiotan egituratzen da: produkzioaren geografia, filmatzeko setak, energiaren kudeaketa eta talde tekniko eta artistikoa. Jarraian, garapen-fasean dagoen proiektu baten ingurumen-inpaktua ebaluatzeko ezaugarri erabakigarriak aurkezten dira.

Ikus-entzunezko produkzioen ohiko indarguneak eta ahulguneak:

GEOGRAFIA



INDARGUNEAK

Filmaketarako eskualde bakarra

Nazioarteko hegaldiak saihesten ditu, eta neurri jasangarriak modu koherentean aplikatzea ahalbidetzen du

Kokalekuen eta kanpamentu nagusiaren arteko hurbiltasuna

Eguneroko joan-etorriak minimizatzen ditu, eta lanaldiak geografikoki multzokatzeko aukera ematen du

Garraio publikoko azpiegitura

Taldeko bidaiak errazten ditu, hiriarteko tren eta autobus konexioekin

ENERGIA



Konexio elektrikoa duten kokalekuak

Energiaren kudeaketa sinplifikatzen dute, eta elektrizitate berriztagarria erabiltzeko aukera ematen dute

Argi naturala aprobetxatzea

Energia-kontsumoa eta sorgailu elektrikoek beharra nabarmen murrizten ditu

TALDE TEKNIKOA ETA ARTISTIKOA



Ekipo trinkoak

Garraio, ostatu eta catering gutxiago behar dute, eta horrek ingurumen-neurrien eraginkortasuna areagotzea dakar

FILMATZEKO SETAK



Aurretiaz dauden benetako kokalekuak

Dekoratuak muntatu beharra ekiditen du, eta, ondorioz, material gutxiago kontsumitzen dira, eta hondakin gutxiago sortzen

Grabazio-estudioa

Ingurune kontrolatua. Ingurumen-inpaktua minimizatzen du, eta ez die eragozpenik eragiten inguruko komunitateei, faunari eta florari

AHULGUNEAK

Eskualde edo herrialde bat baino gehiago

CO₂ emisioak modu esponentzian handitzea dakar, eta koordinazio logistikoa zailtzen du

Seten eta kanpamentu nagusiaren arteko distantzia arazotsuak

Hainbat astetan emisioak metatzea eragiten du, eta ordutegi aldetiko malgutasunerako aukerak murrizten ditu

Garraio publikorik eza

Ibilgailu pribatuetara eta eraginkortasun gutxiagoko garraioetara jotzera behartzen du, eta horiek erregai fosilen mendekotasun handiagoa dute

Konexio elektrikorik gabeko kokalekuak

Sorgailuak erabiltzera behartzen dute, askotan diesela, eta proiektuaren karbono-aztarna handitzen

Gaueko sekuentzia intentsiboak

Argiztapen artifizial masiboa eskatzen dute, eta horrek energia-kontsumoa modu esponentzian handitzea dakar

Tamaina handiko edo figurazio masiboko produkzioak

Behar logistikoa guztiak areagotzen dituzte, eta koordinazio jasangarria modu esponentzian zailtzen dute

Dekoratuak modu masiboan eraikitzea

Inpaktu adierazgarria sortzen du, eraikuntzako materialak eta hondakinak intentsitate handiz kontsumitzeagatik

Naturgune edo komunitate txikiak

Nahasmenduak minimizatzeke arreta handiz planifikatu behar diren ingurune bereziki hauskorrak

Diagnóstico medioambiental

Identificar las fortalezas y puntos débiles de una producción audiovisual es imprescindible para establecer objetivos y medidas de sostenibilidad efectivas. Cuanto más temprano se realice el análisis, mayor margen habrá para tomar decisiones estratégicas que favorezcan la sostenibilidad.

El diagnóstico se estructura en cuatro dimensiones clave: geografía de la producción, sets de rodaje, gestión energética y equipo técnico y artístico. A continuación se presentan las características determinantes para evaluar el impacto ambiental de un proyecto en fase de desarrollo.

Fortalezas y puntos débiles habituales de producciones audiovisuales:

	FORTALEZAS	PUNTOS DÉBILES
GEOGRAFÍA 	<p>Una sola región de rodaje Elimina vuelos internacionales y facilita la aplicación coherente de medidas sostenibles</p> <p>Proximidad entre localizaciones y campamento base Minimiza desplazamientos diarios y permite agrupar geográficamente las jornadas</p> <p>Infraestructura de transporte público Facilita los viajes del equipo con conexiones ferroviarias y autobuses interurbanos</p>	<p>Más de una región o país Incrementa exponencialmente las emisiones de CO₂ y complica la coordinación logística</p> <p>Distancias problemáticas entre sets y campamento base Provoca acumulación de emisiones durante semanas y reduce flexibilidad de horarios</p> <p>Ausencia de transporte público Obliga a recurrir a vehículos privados y soluciones de transporte menos eficientes, más dependientes de combustibles fósiles</p>
ENERGÍA 	<p>Localizaciones con conexión eléctrica Simplifican la gestión energética y permiten acceso a electricidad renovable</p> <p>Aprovechamiento de luz natural Reduce considerablemente el consumo energético y la necesidad de generadores eléctricos</p>	<p>Localizaciones sin conexión eléctrica Obligan al uso de generadores, a menudo diésel, incrementando la huella de carbono del proyecto</p> <p>Secuencias nocturnas intensivas Exigen iluminación artificial masiva que incrementa exponencialmente el consumo energético</p>
EQUIPO TÉCNICO Y ARTÍSTICO 	<p>Equipos compactos Requieren menos transporte, alojamiento y catering, multiplicando la eficacia de medidas ambientales</p>	<p>Producciones de gran envergadura o figuración masiva Multiplican todas las necesidades logísticas y complican exponencialmente la coordinación sostenible</p>
SETS DE RODAJE 	<p>Localizaciones reales existentes Elimina construcción de decorados, reduce consumo de materiales y generación de residuos</p> <p>Estudio de grabación Entorno controlado que minimiza el impacto ambiental y no provoca molestias a comunidades vecinas, fauna ni flora</p>	<p>Construcción masiva de decorados Genera impacto considerable por consumo intensivo de materiales y residuos de construcción</p> <p>Espacios naturales o comunidades pequeñas Entornos especialmente frágiles que requieren planificar cuidadosamente para minimizar alteraciones</p>

Geografia

Filmaketa lurralde jakin batean metatzeak edo hainbat lurraldetan sakabanatzeak nabarmen baldintzatzen du ingurumen-inpaktua. Eskualde bakar batean garatutako produkzioek nazioarteko hegaldiak saihesten dituzte, eta neurri jasangarriak modu koherentean aplikatzea ahalbidetzen dute; eskualde edo herrialde bat baino gehiagoan grabatutako filmaketek, berriz, modu esponenzialean handitzen dituzte CO₂ emisioak eta zaildu egiten dute koordinazio logistikoa.

Kokalekuen eta kanpamentu nagusiaren arteko hurbiltasunak eguneroko joan-etorriak minimizatzen ditu, laneko denbora optimizatzen du eta sekuentziak lanaldiak geografikoki multzokatuz planifikatzeko aukera ematen du. Aitzitik, seten arteko distantzia arazotsuek hainbat astez emisioak metatzea eragiten dute, eta ordutegi aldetiko malgutasunerako aukera murrizten dute.

Garraio publikoko azpiegitura izateak (hiriarteko tren eta autobus konexioak) taldearen bidaiak errazten ditu. Halako azpiegiturarik ez dagoenean, aldiz, horren eraginkorrak ez diren garraio-soluzioen alde egin behar da.

Energia

Konexio elektrikoa eta potentzia nahikoa duten kokalekuek energiaren kudeaketa sinplifikatzen dute, eta elektrizitate berriztagarria erabiltzeko aukera ematen dute. Konexio elektrikorik gabeko kokalekuek, berriz, sorgailuak erabiltzera behartzen dute, eta karbono-aztarna oso modu nabarian handitzen da, batez ere urruneko ingurune naturaletan.

Argi naturala aprobetxatzeak nabarmen murrizten du energia-kontsumoa, eta gutxitu egiten du sorgailu elektrikoen premia. Gaueko sekuentzia intentsiboek argiztapen artifizial masiboa eskatzen dute; horrek energia-kontsumoa modu esponenzialean handitzen du, eta hainbat orduz ekipo elektrikoak erabili beharra eragiten du.

Geografía

La concentración o dispersión territorial del rodaje determina significativamente el impacto ambiental. Las producciones desarrolladas en una sola región eliminan vuelos internacionales y facilitan la aplicación coherente de medidas sostenibles, mientras que los rodajes más de una región o país incrementan exponencialmente las emisiones de CO₂ y complican la coordinación logística.

La proximidad entre localizaciones y el campamento base minimiza los desplazamientos diarios, optimiza el tiempo de trabajo y permite planificar secuencias agrupando geográficamente las jornadas. Por el contrario, las distancias problemáticas entre sets provocan la acumulación de emisiones durante semanas y reducen la flexibilidad de horarios.

La disponibilidad de infraestructura de transporte público (conexiones ferroviarias, autobuses interurbanos) facilita los viajes del equipo. Su ausencia obliga a soluciones de transporte menos eficientes.

Energía

Las localizaciones con conexión eléctrica y suficiente potencia simplifican la gestión energética y permiten el acceso a electricidad renovable. Las localizaciones sin conexión eléctrica obligan al uso de generadores, incrementando drásticamente la huella de carbono, especialmente en entornos naturales remotos.

El aprovechamiento de luz natural reduce considerablemente el consumo energético y disminuye la necesidad de generadores eléctricos. Las secuencias nocturnas intensivas exigen iluminación artificial masiva que incrementa exponencialmente el consumo energético y prolonga el uso de equipos eléctricos durante horas.

Talde teknikoa eta artistikoa Filmatzeko setak

Ekipo trinkoek kudeaketa jasagarria errazten dute, garraio, ostatu eta catering gutxiago eskatzen baitute, eta, hortaz, ingurumen-neurriak askoz eraginkorragoak dira. Tamaina handiko edo figurazio masiboko produkzioek proportzionalki areagotzen dituzte behar logistiko guztiak, eta modu esponontzian zailtzen dute neurri jasagarrien koordinazioa.

Aurretiaz dauden benetako kokalekuak aprobetxatzeak dekoratuak muntatu beharra ekiditen du, eta modu horretan nabarmen murrizten da materialen kontsumoa eta hondakinen sorrera. Dekoratuaren eraikuntza masiboak inpaktu handia dakar, materialen kontsumo intentsiboagatik, sortzen diren eraikuntza-hondakinengatik eta elementuen garraioarengatik.

Naturgune edo komunitate txikiak ingurune hauskorak dira, eta arreta handiz zaindu behar dira ingurumena eta plangintza, tokiko ekosisteman ahalik eta aldaketa gutxien sorrarazteko. Grabazio-estudioek ingurune kontrolatuak eskaintzen dituzte: ingurumen-inpaktua minimizatzen dute, eta komunitateei, faunari eta florari enbarazu egitea ekiditen dute. Hala ere, dekoratuak eraiki behar direnean, gomendagarria da haien karbono-aztarna erabilgarri dauden benetako kokapenekoekin alderatzea, kasu bakoitzean aukerarik jasagarriena aukeratzeko.

Equipo técnico y artístico

Los equipos compactos facilitan la gestión sostenible al requerir menos transporte, alojamiento y catering, multiplicando la eficacia de las medidas ambientales. Las producciones de gran envergadura o con figuración masiva multiplican proporcionalmente todas las necesidades logísticas y vuelven exponencialmente más compleja la coordinación de medidas sostenibles.

Sets de rodaje

El aprovechamiento de localizaciones reales existentes elimina la construcción de decorados, reduciendo drásticamente el consumo de materiales y la generación de residuos. La construcción masiva de decorados genera un impacto considerable por el consumo intensivo de materiales, residuos de construcción y transporte de elementos.

Los espacios naturales o comunidades pequeñas son entornos frágiles que requieren extremar precauciones ambientales y planificación cuidadosa para minimizar alteraciones en el ecosistema local. Los estudios de grabación ofrecen entornos controlados que minimizan el impacto ambiental y evitan molestias a comunidades, fauna y flora. Sin embargo, cuando requieren construcción de decorados, es recomendable comparar su huella de carbono con la de las localizaciones reales disponibles para elegir la opción más sostenible en cada caso.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK

Jasangarritasun plan oren helburu orokorra ingurumen-inpaktua gutxitzea da

Sektorearen datuek agerian uzten dute eginahalak nora bideratu: garraioak eta bidaiak ikus-entzunezko produkzioen ingurumen-inpaktuaren erdia baino gehiago eragiten dute. Ikus-entzunezko jasangarritasun plan orok ebidentzia horietara egokitutako funtsezko hiru helburu ditu. Proiektu bakoitzak ezaugarri eta baldintzatzaile propioak ditu: ezinbestekoa da horiek aztertzea helburu espezifikoak eta neurri egokituak ezartzeko.

/ CO₂ emisioak murriztea

Karbono-aztarna minimizatzea, mugikortasun jasangarria eta optimizazio logistikoa lehenetsiz, energiaren eta iturri berriztagarrien erabilera efizientearekin batera.

/ Hondakin-kopurua murriztea

Zero hondakineko helburuaren alde egitea, hondakinak gaika kudeatuz, materialak berrerabiliz eta baliabideen balio-bizitza luzatuko duten ekonomia zirkularreko printzipioak aplikatuz.

/ Ezarpena erraztea

Teknikariei eta langile artistikoei jardun jasangarriei buruzko informazioa ematea, proiektuaren helburuak jakinaraztea eta emaitzak dokumentatzea, sektorearekin jardun onak partekatzeko.

Objetivos

OBJETIVOS GENERALES

El objetivo general de todo plan de sostenibilidad es reducir el impacto ambiental

Los datos del sector revelan dónde enfocar los esfuerzos: el transporte y los viajes representan más de la mitad del impacto ambiental de las producciones audiovisuales. Todo plan de sostenibilidad audiovisual persigue tres objetivos fundamentales adaptados a estas evidencias. Cada proyecto tiene características y condicionantes propios: imprescindible analizarlos para establecer objetivos específicos y medidas adaptadas.

/ Reducir emisiones de CO₂

Minimizar la huella de carbono priorizando la movilidad sostenible y la optimización logística, junto con el uso eficiente de la energía y fuentes renovables.

/ Reducir residuos

Avanzar hacia el residuo cero a través de la gestión selectiva de residuos, la reutilización de materiales y la aplicación de principios de economía circular que alarguen la vida útil de los recursos.

/ Facilitar la implantación

Informar al personal técnico y artístico en prácticas sostenibles, comunicar los objetivos del proyecto y documentar los resultados para compartir buenas prácticas con el sector.

HELURU ESPEZIFIKOAK

Helburu espezifikoak proiektu bakoitzaren berezko ezaugarri eta baldintzatzailetatik abiatuta ezartzen dira

Hasierako diagnosian hautemandako puntu kritikoen eta indarguneen arabera, erronka estrategikoari heldu behar zaio: identifikatutako ahulguneak nola mugatu eta proiektuaren indarguneak nola indartu. Prozesu horrek oreka-jokoa eta konpromisozko erabakiak eskatzen ditu, kontuan hartuta erabilgarri dagoen aurrekontua, giza baliabideak eta baliabide teknikoak, eta produkzioaren ezaugarri artistiko espezifikoak.

Helburu espezifikoek, ahal den neurrian, zehatzak eta neurgarriak izan behar dute, eta helburu zenbakarriak ezarri behar dira, hala nola, emisioak gutxitzeko ehunekoak, energia berriztagarrien erabilera edo tokiko hornitzaileen kontratazioa. Zehaztasun horrek emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egitea ahalbidetzen du.

Lehentasanak pixkanaka eskalatu daitezke: energia aurrezteko oinarrizko neurrietatik hasi eta asmo handiagoko helburuetara arte, hala nola, karbono-aztarnaren neurraketa osoa, emisioak konpentsatzeko programak edo Green Film modura aitortutako ziurtagiri berdeak lortzea, proiektuari balioa gehitzen baitiote, eta jasangarritasunarekiko arloko konpromiso indartzen.

Taula honetan diagnosian identifikatutako ahulgune nagusiak eta horiek jorratzeko jasangarritasunaren alorreko helburu eraginkorrenak lotzen dira:



AUTODIAGNOSTIKO-FITXA

Gida honen osagarri gisa, eskuragarri dago autodiagnosirako tresna simple bat. Produkzioaren oinarrizko informaziotik abiatuta, jasangarritasun plana eratzeko lehentasanak ezartzeko oinarri modura baliagarri izango diren puntu kritikokoak eta indarguneak identifikatzeko pentsatutako lan-fitxa bat da.

	AHULGUNEAK	LEHENTASUNEZKO HELBURUAK
GEOGRAFIA	<p>Eskualde edo herrialde bat baino gehiago</p> <p>Garraio publikorik eza</p> <p>Seten eta kanpamentu nagusiaren arteko distantzia arazotsuak</p>	<p>1. Plangintza estrategikoa</p> <p>2. Emisio urriko mugikortasuna</p>
ENERGIA	<p>Konexio elektrikorik gabeko kokalekuak</p> <p>Gaueko sekuentzia intentsiboak</p>	<p>3. Plangintza estrategikoa</p> <p>4. Energia berriztagarria eta efizientea</p>
TALDE TEKNIKOA ETA ARTISTIKOA	<p>Tamaina handiko edo figurazio masiboko produkzioak</p>	<p>5. Plangintza estrategikoa</p> <p>6. Emisio urriko mugikortasuna</p> <p>7. Elikadura jasangarria</p> <p>8. Hondakinak gutxitzea eta kudeatzea</p> <p>9. Jasangarritasun soziala</p> <p>10. Komunikazioa eta sentsibilizazioa</p>
FILMATZEKO SETAK	<p>Dekoratuak modu masiboan eraikitzea</p> <p>Naturgune edo komunitate txikiak</p>	<p>11. Material zirkularrak hautatzea</p> <p>12. Ingurumen-babesa</p> <p>13. Jasangarritasun soziala</p>

OBJETIVOS ESPECÍFICOS

Los objetivos específicos se establecen a partir de las características y condicionantes propios de cada proyecto

En función de los puntos críticos y fortalezas detectadas en el diagnóstico inicial, llega el momento de afrontar el desafío estratégico: cómo limitar las debilidades identificadas y potenciar las fortalezas del proyecto. Este proceso implica un juego de equilibrios y decisiones de compromiso, considerando el presupuesto disponible, los recursos humanos y técnicos, y las características artísticas específicas de la producción.

Los objetivos específicos deben ser, en la medida de lo posible, concretos y medibles, estableciendo metas cuantificables como porcentajes de reducción de emisiones, uso de energías renovables o contratación de proveedores locales. Esta especificidad facilita tanto el seguimiento como la evaluación de resultados.

Las prioridades pueden escalar progresivamente: desde medidas básicas de ahorro energético hasta objetivos más ambiciosos como la medición completa de la huella de carbono, programas de compensación de emisiones, o la obtención de certificaciones verdes reconocidas como Green Film, que añaden valor al proyecto y refuerzan el compromiso sectorial con la sostenibilidad.

La siguiente tabla relaciona los principales puntos débiles identificados en el diagnóstico con los objetivos de sostenibilidad más efectivos para abordarlos:



FICHA DE AUTODIAGNÓSTICO

Como complemento a esta guía, está disponible una sencilla herramienta de autodiagnóstico. Consiste en una ficha de trabajo pensada para identificar, a partir de la información básica de la producción, los puntos críticos y fortalezas que servirán de base para establecer prioridades en la elaboración del plan de sostenibilidad.

	PUNTOS DÉBILES	OBJETIVOS PRIORITARIOS
GEOGRAFÍA	Más de una región o país Ausencia de transporte público Distancias problemáticas entre sets y campamento base	1. Planificación estratégica 2. Movilidad de bajas emisiones
ENERGÍA	Localizaciones sin conexión eléctrica Secuencias nocturnas intensivas	3. Planificación estratégica 4. Energía renovable y eficiente
EQUIPO TÉCNICO Y ARTÍSTICO	Producciones de gran envergadura o figuración masiva	5. Planificación estratégica 6. Movilidad de bajas emisiones 7. Alimentación sostenible 8. Reducción y gestión de residuos 9. Sostenibilidad social 10. Comunicación y sensibilización
SETS DE RODAJE	Construcción masiva de decorados Espacios naturales o comunidades pequeñas	11. Selección de materiales circulares 12. Protección ambiental 13. Sostenibilidad social

Neurriak

Ezarri beharreko neurriak garatzean, funtsezkoa da arduradunak eta epeak zehaztea

Hurbileko kokalekuetan filmatutako aurrekontu txikiko produkzioak nazioarteko superproduzioaz oso bestelako estrategiak eskatzen ditu. Jasangarritasun eraginkorrak proiektu bakoitzean erabilgarri dagoen aurrekontura, ikus-entzunezko formatura, filmaketaren iraupenera eta berezitasun logistikoetara egokitzen ditu neurriak.

Neurri bakoitzean zehaztu behar da zein pertsonak edo taldek aplikatuko duen, produkzioaren zein unetan eta zein espaziotan. Lan-eremuei dagokienez, kokalekuetan eta filmaketa-setetan sortzen da ingurumen-inpaktu handiena. Hala ere, aintzat hartu behar da jasangarritasun-neurriak produkzio-bulegoan, filmaketa-platoetan edo arte-produkzioaren tailerrean ere ezartzeko premia.

Medidas

Al desarrollar las medidas a implantar es esencial especificar responsables y plazos

Una producción de bajo presupuesto rodada en localizaciones cercanas requiere estrategias muy diferentes a una superproducción internacional. La sostenibilidad efectiva adapta las medidas al presupuesto disponible, el formato audiovisual, la duración del rodaje y las particularidades logísticas de cada proyecto.

Cada medida debe especificar qué persona o equipo la ejecutará, en qué momentos de la producción y en qué espacios se aplicará. En lo que respecta a los espacios de trabajo, las localizaciones y sets de grabación es donde se produce mayor impacto medioambiental. Sin embargo, no hay que dejar de considerar implantar medidas de sostenibilidad en la oficina de producción, los platós de grabación o el taller de producción de arte.

Gidak jasangarritasun-neurrien hautaketa bat jasotzen du, 10 irizpide eguneratu hauetan multzokatuta:

- 1. Plangintza estrategikoa garapenean eta preproduzioan**
- 2. Emisio urriko mugikortasuna**
- 3. Energia berriztagarria eta efizientea**
- 4. Elikadura jasangarria**
- 5. Hondakinak gutxitzea eta kudeatzea**
- 6. Material zirkularrak**
- 7. Ingurumen-babesa**
- 8. Jasangarritasun soziala**
- 9. Komunikazioa eta sentsibilizazioa**
- 10. Ingurumen-inpaktuaren neurraketa**

INGURUMEN-INPAKTUAREN ETA INPAKTU SOZIALAREN ARTEKO OREKA

Ikus-entzunezko produkzioen berotegi efektuko gasen emisioetan eragin handiena duten inpaktuak distantzia luzeko bidaiekin eta eguneroko joan-etorriekin zerikusia dutenak dira. Beraz, emisioak gutxitzeko erabaki eraginkorrenak lotuta daude garapeneko eta preproduziorako plangintza estrategikoarekin eta emisio urriko mugikortasunarekin. Biak dira arlo estrategikoak, eta proiektuen garapen-fasean jorratzea komeni dira.

Hala ere, gainerako neurriak ere garrantzitsuak dira ingurumen inpaktu txikiko ikus-entzunezko produkzio jasangarria gauzatzeko. Izan ere, eguneroko alderdi ukigarriak, hala nola, elikadura eta hondakinak, funtsezkoak dira teknikarien eta artisten artean ingurumena zaintzeko giro positiboa sortzeko. Era berean, jasangarritasun sozialeko alderdiak ere (hala nola, taldearen ongizatea, eta komunikazio-eta sentsibilizazio-neurriak) produkzio jasangarritik bereizezinak dira.

La guía contiene una selección de medidas de sostenibilidad, agrupadas en los siguientes 10 criterios actualizados:

- 1. Planificación estratégica en desarrollo y preproducción**
- 2. Movilidad de bajas emisiones**
- 3. Energía renovable y eficiente**
- 4. Alimentación sostenible**
- 5. Reducción y gestión de residuos**
- 6. Materiales circulares**
- 7. Protección ambiental**
- 8. Sostenibilidad social**
- 9. Comunicación y sensibilización**
- 10. Medición de impacto ambiental**

EQUILIBRIO ENTRE IMPACTO AMBIENTAL Y SOCIAL

